

**“ENTZUNGO DIZUT ENTZUN EIDAZU, GABILTZA,  
BION ARTEAN ZAILA DENEAN, DUGU BITARTEKARITZA,  
ELKAR ADOSTEN DAKIGUNEAN ATSEGINA DA BIZITZA,  
GURE GATAZKAK BIDERATZEKO ARMA ONENA DA HITZA”**

Kepa Maillea

## SARRERA

Urteak dira jada, eskolan bizikidetzaren inguruan egin diren hainbat lan. Aurreko urteetan “Elkarbizitza jarrera desegokiak bideratuz” dokumentua sortu zen eta geroago “Antolakuntza eta Jarduera Araudia” (AJA) dokumentu ofiziala berraztertu eta eguneratu egin zen gaur egun indarrean egonik.

Baina bizikidetza ez da bakarrik arauak izatea, horregatik eta prebentzio mailan eta era positiboan bizikidetzari hurbildu eta landu nahian, 2011-2012 ikasturtean saiatu gara bizikidetzaren inguruan sentsibilizazio eta diagnostikoa egiten. Horrela ikasten ari gara nola egin dezakegun gero eta giro hobetua egon dadin gure ikastetxean, zer den guretzat bizikidetza eta azkenean guk, eskola bezala ezarritako ZEREGINA lortzen joan. Egokia da beraz gogoratzea, zeregin hori:

*“ Getxoko Andra Mari Ikastetxearen Zeregina pertsonak osotasunean hezitzea da, ikasleen berariazko konpetentziak garatzen eta baloreen bizipenean oinarrituz, elkarbizitzan, espiritu kritikoz, autoestimu sendoz eta ikasketa prestakuntza on batez”*

Lan honetan azpimarratu nahi duguna da guztion parte hartzearen beharra. Plan hau, eskola komunitatearena da eta ikasle, irakasle, familiak, ez irakasleak, guztiok inplikaturik gaude. Urtez-urte indarberritu beharrekoa eta egunez-egun borborean egon beharko duena. Harreman positiboak daude oinarrian eta hori da guztion artean bultzatu beharko duguna bai eskolan, kalean, zein familian ere.

Eskolari dagokionez, eremu guztietan islatu behar da bizikidetzarekiko konpromisoa. Curriculumari dagokionez, eduki zein metodologi integratzaileak aukeratu, antolakuntzari dagokionez, berdintasunaren aldeko erabakiak hartzen, lehentasuna ematen behar gehien duten ikasleen alde jokatzeko, eta abar, eta abar. Lanean aritzen gara hainbat arlo eta eremuetan eta horretan jarraituko dugu, baina plan honi esker ikasturte bakoitzean arreta berezia jarriko dugu erabakitako aspektu zehatz batean eta hori urteko plangintzan garatzen saiatuko gara.

## GURE DEFINIZIOA

*“Bizikidetza da besteekin harreman izateko dugun era. Bizikidetza positiboa da pertsona guztiak baloratuak, maitatuak, errespetatuak sentiarazten dituen eta tolerantzia eta armoniazko sentimenduak garatzen dituen”*

## DIAGNOSTIKOA

Itaunketa baten bitartez sektore guztietako kideek izan ziren euren iritzia eman zutenak eskolako bizikidetzari buruzko aspektu desberdinetan; parte hartzea, lankidetzaren, berdintasuna, enpatia, gatazken aurrean jokatzeko era, gatazken maiztasuna, parekoen arteko harremanak, beldurrak, besteak beste. 245 ikaslek, 80 familiak, 34 irakasle eta 30 ez irakasle parte hartu zuten hain zuzen lan honetan.

Lan honen ondorioak laburbilduz, gure ikastetxean bizikidetzari buruzko pertzepzioa oso ona dela esan dezakegu. Kuantitatiboki begiratuta 8,4ko puntuazioa ematen baitu batezbestekoak.

Hori kontuan hartuz, ez dugu ahaztu behar, analisi zehatzago batean egin eta gero, agertzen zaizkigun zenbait hobetze eremuak edo ahuleziak. Diagnostiko horretatik konklusio gisa atera ditzakegunak eta lehenetsi ditugunak besteak beste. Hauexek dira geroago helburuak bihurtu beharko ditugunak

- Andra Mari Ikastetxean badaude harreman arazoak dituen ikaslerik, baztertua sentitzen denik edo arazoak izan eta inoren laguntza bilatzen ez duenik
- Generoak dezente markatzen ditu harremanak ikasleen artean: Mutilek neskek baino zailtasun gehiago dituzte bere sexuak ez direnekin harremanak izateko, zailtasun gehiago dituzte gatazkek konpontzeko edo arazoei buruz hitz egiteko...Neskek enpatiarako gaitasun handiagoa dute, haien arazo edo beldurrei buruz hitz egiteko edo sentimenduak azalerazteko
- Ikasleen sektorean denborak eragin kaltegarria du elkarbizitzaren kalitatean:
- Eskolarekiko harremanaren zama amek daramate
- Gurasoak, denboraren poderioz, gero eta kritikagoak dira eskolako arauetako
- ...

Hauk eta beste batzuk dira atera ditzakegun konklusioak diagnostikoa egin ondoren eta “Diagnostikoa. Emaitzak 12/06/09” dokumentuan jasota daudenak.

2012- 2013 ikasturterako planifikazioari begira ondoko koadroan agertzen dira izango ditugun helburuak, ekintzak eta abarrekak.

Alde batetik plan honen zabaltzeari dagokiona. Bigarren bat, geuk jakin gabe baztertuak, beldur edo animurik gabe sentitzen diren ikasle horiei zuzenduta.

Hurrengo ikasturteetan lantzeko dugun beste hirugarren helburu bat aipatu nahi dugu, hau da, ikasleen arteko bitartekaritza bultzatzeko pentsatuta dagoena non ikasleak protagonista zuzenak izango diren bizikidetza positibo baten aldeko lan egiteko Andra Mari ikastetxean.

**PLANIFIKAZIOA 2012-2013 ikasturterako**

<b>Helburuak</b>	<b>Ekintzak</b>	<b>Arduraduna</b>	<b>Baliabideak</b>	<b>Denboralizazioa</b>	<b>Lorpen adierazleak</b>	<b>Ebaluazioa</b>
1. Plan honen difusioa ziurtatu	1.1 Klaustroan 1.2 Eskola kontseiluan 1.3. Ez irakasleen sektorean 1.4 Familietan/Zirkularra 1.5 web orrian eskegi. 1.6 ikasturteko hasierako gurasoen bileretan aurkeztu	1.1 Zuzendaria 1.2 Zuzendaria 1.3 Zuzendaria 1.4 Zuzendaria/IKT teknikaria 1.5 IKT Teknikaria 1.6 Tutorea	1.1 Bilerak 1.2 Bilerak 1.3 Bilerak 1.4 Zirkularra 1.5 Teknikoak 1,6 txostena	1.1 Guztiak lehenengo hiruhilabetean	1.1.Bilerak egin dira eta web orrian eskegita dago Bizikidetza Plana	1.1 Bizikidetza behatokiak egingo du planaren jarraipena Hiruhilean behin elkartuko da gutxienez
2. Beldur edota bazterturik sentitzen diren ikasleak detektatu eta laguntza eskaini.	2.1.-Bakarkako tutoretza 2.2.-Behaketa zuzena, patioan, jantokian	2.1.Tutorea 2.2.Arduradunak	2.1.Denbora 2.2.Erregistro orria	2.1. ikasturtean zehar 2.2 Egunero	2.1. Gutxienez, ikasturtean, tutorea pertsonalki ikasle bakoitzarekin bi aldiz elkarrizketatu da 2.2. Gutxienez hamar ikasleen erregistroak lortu ditugu	3.1 Bizikidetza behatokiak egingo du planaren jarraipena Hiruhilean behin elkartuko da gutxienez.